

Euskal AEko okupazio-tasa 27-EBko batez bestekoaren gainetik dago

Emakumeen okupazio-tasa zonako batez bestekoaren berdina da

Euskal AEko okupazio-tasa, -%66,5- 27-EBko batez bestekoaren -%64,3- gainetik dago, Eustaten 2006ko datuen arabera, urte horretakoak baitira azken datu eskuragarriak. Urte horretan Espainiakoa %64,8 zen.

Danimarka (%77,4), Herbehereak (%74,3), Suedia (%73,1), Britainia handia (%71,5) eta Austria (%70,2) ziren okupazio-tasarik handienekoak zonan. Azpitik, Polonia (%54,5), Malta (%54,8), Hungaria (%57,3) eta Italia (%58,4) dauzkagu.

Datu hauek 1995 eta 2.000koekin alderatuz gero errotiko aldaketa igartzen da; izan ere, okupazio-tasa 1995ean %48,5 zen, %57,5 2000n eta %66,5 2006an, azken urte honetan 27-EBko batez bestekoa gaintitu zuelarik. Urte horietan Espainiako portzentajeak %46,9, %56,3 eta %64,8 ziren; eta 27-EBn %62,2 2.000n eta %64,3 2.006an.

Okupazio-tasa (%) 27-EBn (1995-2006)

	1995	2000	2006
EU-27	:	62,2	64,3
Alemania	64,6	65,6	67,2
Austria	68,8	68,5	70,2
Belgika	56,1	60,5	61
Bulgaria	:	50,4	58,6
Zipre	:	65,7	69,6
Danimarka	73,4	76,3	77,4
Eslovakia	:	56,8	59,4
Eslovenia	:	62,8	66,6
Espainia	46,9	56,3	64,8
Estonia	:	60,4	68,1
Finlandia	61,6	67,2	69,3
Frantzia	59,5	62,1	63
Grezia	54,7	56,5	61
Herbehereak	64,7	72,9	74,3
Hungaria	:	56,3	57,3
Irlanda	54,4	65,2	68,6
Italia	51	53,7	58,4
Letonia	:	57,5	66,3
Lituania	:	59,1	63,6
Luxenburgo	58,7	62,7	63,6
Malta	:	54,2	54,8
Polonia	:	55	54,5
Portugal	63,7	68,4	67,9
Erresuma Batua	68,5	71,2	71,5
Txekiar Errepublika	:	65	65,3
Errumania	:	63	58,8
Suedia	70,9	73	73,1
Euskal AE	48,5	57,5	66,5

Iturria: Eustat eta Eurostat

Euskal AEko emakumeen okupazio-tasa, %57, 27-EB herrialdeetako berbera da ia (%57,1). Azken urte hauetako Euskal AEn bilakaera azpimarragarria da; izan ere, 1995eko %34,4tik 2000ko %43,0ra eta hortik 2006ko %57,0ra.

Europako iparraldeko herrialdeak ziren aurrenekoak ere 2006an atal honetan: Danimarka (%73,4), Suedia (%70,7), Herbehereak (%67,7) eta Finlandia (%67,3) zeuden aurreneko tokietan. Maltan (%34,9), Italian (%46,3) eta Grezian (%47,4) zeuden emakumeen okupazio-tasarik txikiak. Espainian 1995ean %31,7 zen tasa, %41,3 2000n eta %53,2 2006an, 27-EBko batez bestekoaren azpitik.

Jakingarria da, baita ere, 2006an Euskal AEn 55 eta 64 urte arteko biztanleriaren okupazio-tasa %41,7 zela, 27-EBko (%43,5) eta Espainiako (%44,1) batez bestekoen azpitik.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Pilar Martínez

Tlf:+34-945-01 75 36 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: [+www.eustat.es](http://www.eustat.es)